

EZ OHIKO UDALBATZARRA

Errezilgo Udaletxeko Pleno Aretoan, 2010eko apirilaren hogeita bederatziko gaueko bederatzia eta hamar minutu direnean, bildu dira, ez ohiko Udalbatzarra egiteko ondoko Korporatiboak:

Iñaki Oiartzabal Zinkunegi-Alkate Lehendakaria

Joseba Iñaki Labaka Beristain-Zinegotzia.

Luis Berrondo Lanceta-Zinegotzia.

Jose Luis Albisua Lasa- Zinegotzia.

Bittor Astigarraga Zugasti- Zinegotzia.

Luis Arzallus Amenabar, Zinegotzia.

Josune Arruti Eizagirre, ez da etorri.

Idazkari lanetan, Maria Etxeberria Urretabizkaia Udaletxeko Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea.

Alkateak hasera eman dio bilkura honi ondoko gai zerrendaren arabera:

LEHENENGO PUNTUA:

2.010EKO MARTXOAREN 24KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Alkateak 2.010eko martxoaren 24ko aktaren berri ematen du eta hitza hartu du eta zinegotziek aho batez onartzen dute.

BIGARREN PUNTUA:

2009KO LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.

Alkateak 2009ko likidazioaren berri ematen du, 31/2010 Dekretua literalki jakineraziaz:

“ Udal honen 2009(e)ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2009(e)ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2009-12-31n:		16.103,52
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2009-12-31n:		87.040,51
Aurrekontuko zordunak :	82.688,93	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	4.351,58	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2009-12-31n:		106.036,51
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	5.123,92	
Sarrerren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	100.912,59	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		2.892,48
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):		2.892,48
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		2.892,48
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		21.306,08
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		0,00
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		0,00
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):		21.306,08
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:		243.773,91
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:		0,00
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):		243.773,91

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran”.

Ondoren, Koldo Albisu zinegotziak beraiek aurrekontuak ez zituztela onartu eta orain gestioa ere ez dugula onartzen jakinerazten du. Haseran aurrekontu bat onartu, ondoren kreditu aldaketa bat egin.....

Koldo Arzallusek ere Koldo Albisurekin bat egiten duela komentatzen du.

**HIRUGARREN PUNTUA:
2010EKO URTARRILAREN 1EKO UDAL BIZTANLE ERROLDAREN
ONARPENA.**

Alkateak Errezilgo 2010eko urtarrilaren 1eko udal biztanleen errolda 616 pertsonetako dela komentatzen du, hau da, 324 gizonezko eta 292 emakumezko. Eta zinegotziak jakinaren gainean geratzen dira. Alkateak baita ere komentatzen du, 2009ko urtarrilaren 1ean aldiz, udal biztanle errolda 628 pertsonetakoa zela.

Ondoren, Koldo Albisuak dio biztanle erroldaren jeitxiera hau aztertu egin beharko litzatekeela, hau da, herritik ze jendek aldegin duen aztertu, hau da, gazteak, helduak..... eta aldegitik hori zergatik izan daitekeen aztertu.

**LAUGARREN PUNTUA:
ZENBAIT MOZIOEN AZTERKETA.**

Ikusirik Larraulgo Udalak Larraulen eskola txikiaren inguruan aurkezturiko mozioa, Udalbatzak aho batez zera erabaki du.

1.- Errezilgo Udalak bere babes osoa adierazten dio Larraulgo Udalari bere herrian eskola propio bat izan dezan.

2.- Hezkuntza Sailak 2009ko apirilak 8an onartu zuen bezela 2010-2011 ikasturterako, Larraulen Eskola Txiki independente bat sortzeko onarpena bere osotasunean bete dezala.

3.- Errezilgo Udalak onartutakoa berri emango dio Larraulgo Udalari eta Hezkuntza Saileko Saliburuari.

Bittor Astigarraga zinegotziak Plenoa uzten du.

**BOSTGARREN PUNTUA:
ORDAINAGIRIEN ONARPENA.**

Ez dago ordainagiririk.

**SEIGARREN PUNTUA:
ALKATETZA BERRIAK ETA EBAZPENAK.**

- 1.- 2009ko 2.seihilabeteko ura eta estolderiaren itzulera bat.
- 2.- Odria Berriko teilatua konpontzeko baimena ematea.
- 3.- 2009ko likidazioaren onarpena.
- 4.- Arregi-Txikia baserria berritzeko baimena baldintzatuta ematea.
- 5.- Añoi baserrian esnetegia eta esnekien produkzio ihardueraren legeztapen espedientean, Alkatearen aldeko txostena ematea.
- 6.- 2010eko martxoko fakturen onarpena.
- 7.- Madrilesa etxeko 2.solairuan pertsona bat erroldatzea.
- 8.- Gazteleku eta liburutegiko erabilera eta kudeaketa emateko jarritako abalaren itzulera.
- 9.- SS-9057-AX matrikuladun ibilgailuaren zergaren itzulera.
- 10.- Komunitatearen aldeko lanak egiteko eskaera onartzea.

**ZAZPIGARREN PUNTUA:
GALDERAK ETA ERREGUAK.**

Koldo Albisuak dio, pasa den urtean guk aberri eguna antolatu ez genuelako kritika jaso genuela eta nik aurten antolatu ez delako kritikatu egiten dut.

Iñaki Labakak erantzuten dio, festetarako diru gehiago egoteko ez zela antolatu.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko bederatzia eta berrogei minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.